

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERGANZOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lehiaketa publikoa, VI-10113 ehiza barrutiko ehiza aprobetxamenduarena

Lehiaketa publikoa, Berganzo-VI-10113 ehiza barrutiko ehiza aprobetxamenduarena, zeina Berganzoko jurisdikzioko lurrek osatzen duten eta titularra, jabe taldearen ordezkartzan, Berganzoko Administrazio Batzarra baita, administrazio batzar horretan interesdunen eskura dauden baldintzen arabera.

Lizitazio oinarria da zortzi mila laurehun eta hirurogeita hamar euro (8.470,00) urteko –BEZa barne–, eta gehiago eskainita hobetu ahal izango da. Gainera, tokiko ehiztariek ehiza barrutian parte hartzeko baldintzak baloratuko dira.

Behin betiko bermea esleipen zenbatekoaren ehuneko bost (ehuneko 5) izango da.

Ehiza barrutiaren ehiza aprobetxamenduaren errentamendu aldia bost (5) urtekoa izango da, beste bost urtez luza daitekeena.

Eskaintzak aurkezteko epea zortzi (8) egun naturalekoa izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Berganzo-VI-10113 ehiza barrutiaren ehiza aprobetxamendua esleitzeko, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak ehiza barrutia onetsi behar du aldez aurretik, dagokion foru agindua sinatuta.

Berganzo, 2022ko ekainaren 10a

Lehendakaria

EMILIO MANUEL LÓPEZ GUTIÉRREZ